

BALEIKE

200 pta.

71. zenb.

Herria minez

Zumaiar bat
olimpiadetan

Santelmoak
Palentzian

Jaialdiaren
balorazio gazi-
gozoa



Aita Mari auzategia ↑
Alai auzategia ↑
geltokia ↑
museoak ↑
osasun zentrua ←

**E.T.A. ASKI DA
HERRIAK DU HITZA**

Urolthermik

Arotzia Metalikoa



Urolthermik
Carpintería metálica

POLIURETANOZKO LEIHOAK PERFILTHERMIK SISTEMA



- Aluminiozko leihoak (zubi termikoa etenda)
- Aluminiozko barandak
- Pertsiana mallorcarrak
- Garajetako metalezko ateak eta suhesiak

Santixo auzoa, 20. pabilioia
Tel./Faxa: 943 - 86 03 20 ZUMAIA

ERROTA



OPIL OKINDEGIA

*era guztietako tarta
eta pastelak*

LABEA:

Santixo auzoa TEL: 943 86 00 00

Erribera, 2 TEL: 943 14 30 01

Juan Belmonte, 5 TEL: 943 86 03 00

Basadi, 4 TEL: 943 14 32 21

P. Etxezarreta, 42 TEL: 943 86 25 28

Alai, 8 TEL: 943 86 25 60

Foronda kultur etxea
tel.: 943 86 15 45
faxa: 943 86 17 42
e-mail: baleike@topagunea.com

Argitaratzailea

ZUMAIKO GAZTE BATZORDEA

Administrazio batzordea

Xabier Azkue
Esther Etxebarria
Aintzane del Pilar

Erredakzio batzordea

Antxoka Agirre
J.L. Romatet
Josu Waliño

Gorka Zabaleta

Kazetariak

Antxoka Agirre
Gorka Zabaleta
J.L. Romatet

Kolaboratzaileak

Ostarrena Zine Klub
taldea, Miriam Romatet,
Jon Manzísidor,
Fototeka,
Andoni Ormazuri, etab.

Komikia

Iban Barrenetxea

Argazkiak

Baleike

Diseinua

Juan Luis Blanco

Maketazioa

Argi Aizpurua

Hizkuntz zuzenketa

Xabier Azkue

Banaketa

Andoni Ormazuri,
J.J. Aizpurua

Publizitatea

Esther Etxebarria
(943 861545)

Inprimategia

Gertu Inprimategia
(Zubillaga - Oñati)

Tirada

1.000 ale

Lege gordailua

SS-405/94

ISSN

1136-8594

Baleikek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Lurra

Beti egin izan zait erraza Atari hau idaztea. Gaiak aurkitzeko ez dut inoiz arazorik izan, arazo bakarra esateko neukana hain hitz gutxitan esatean zetzan, baina horrek ere bazuen pizgarri berezia: hitz jokoak erabiltzeko aukera eskaintzen zuen egoera izan da hori beti.

Oraingoan ordea, inoiz baino zailagoa daukat. Gaiaren inguruan ez daukat zalantzarik, baina hitzak ez zaizkit ateratzen eta jokoak ere nahiago ditut beste garai batetarako utzi. Hitzak ateratzen ez zaizkidan honetan sentimenduak besterik ez zaizkit azaleratzen: sentimendu nahasiak, bata bestearen atzetik pilatzen direnak, baina guztien artean hiru gailentzen dira: mina, amorrua eta inpotentzia. Mina eta amorruaren aurrean ezin dut ezer egin, baina inpotentziarekin zer egin?

Duela gutxi honakoa entzun nion Arzallusi: "donde hay patrón no manda marinero". EAJri buruz ari zen noski, baina zoritxarrez hori da euskal politikagintzaren egoera orokorra. Hori da EHren egoera. Patroiek ontzia itsaso zabalean daramate, norabidea fijo, izpirik mugitu gabe nahiz eta haizearen kontra eraman. Eta bitartean mariñelak gose eta egarri dira: pake gose eta askatasun egarri. Bada garaia norbaitek masta nagusitik itsasoaren mugaraino begiratzean "Lurraaaaaaa!" oihukatu eta ontzia hara bideratzeko. Euskal gizarteak merezi du eta.



Josu Waliño

Premiazko telefonoak

Kultur Etxea	943 86 10 56	Ludoteka	943 14 32 64
Polikiroldegia	943 86 20 21	Tren geltokia	943 86 11 27
Gurutze gorria	943 86 10 93	Taxi geltokia	943 86 13 60
Udaletxea	943 86 50 25	Bake epaitegia	943 86 00 67
Gizarte Zerbitzuak	943 86 22 00	Posta	943 86 15 00
Osasun zentrua	943 86 08 62	Udaltzaingoa	943 86 18 70
San Juan Egoitza	943 86 12 73	Pilotalekua	943 86 21 72
Pentsiodunen Egoitza	943 86 17 00	Larrialdi zerbitzua	943 46 11 11
Musika eskola	943 86 11 83	Txomin Agirre euskaltegia	943 86 02 48

Argitalpen honen edizioko laguntzaile:



Zumaiako Udala



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA



gizarte-ekintza
obra social



Betirarte, Pantxike!

Joan hatzaigu. Ihes egin digun eskuetatik, hondar aleek bezala, ezarian-ezarian. Gorputz eta arima eutsi nahi izan dion biziari, borroka paregabean ahitu haiz, eta duintasunez eta harrotasunez eutsi dion azkenera arte. Eskerrik beroenak, Pantxike, une oro erakutsi digunen adorea, bizi-poza eta alaitasunagatik.

Aspaldi ezagutu hindugun, eta makina ordu eman ditinagu harrezkero elkarrekin. Gure Herria eta Hizkuntzaren aldeko eginahaletan.


Beti izan haugu lagun lagun, irria ezpainetan, bizitzeko gogoz gainezka eta une larrietan ere eskua luzatzeko prest. Azken bolada honetan, gaitzak gaitz, ez dun irria galdu eta bisitan joan izan gaitzaizkinanean, beti erakutsi digun adore paregabea.

- "Honek ez nau ni eramango, nik bizi nahi dinat" - esan digun behin eta berriro. Azkenetan, pattalago egonda ere, erdi beldurturik inguratu gaitzaizkinanean zer moduz galdezka, heu izan haiz, garai bateko pasadizoak gogora ekarri eta bestelako kontuak ahoan, irria ezpainetara ekarri digunena. Heu, itxuraz makalena, ahulena, azaldu haiz adorez beteena. Eskerrak, Pantxike, eman digunen lezioagatik.

Heure-heurea izan dun Herri Eskola ere, eta ez dun horretan ere hutsik egin. Kezka eta erantzukizuna erne izan dun buruan: -zer moduz halakoak?, beste hura konpondu al duk?- Eutsi egin dien azkenera arte hartutako erantzukizunei. Portatu haiz horretan ere!

Ez dinagu agurrik esan nahi. Eskuetatik erauzi egin zigutenan hire gorputza, baina ez zigutenan heure oroitzapena eramango; izan ere, bai Artadi aldeko egunsenti argitsuenetan, bai Itzurun aldeko ilunabar paregabeetan ere izango haugu lagun, bizi-pozez distiratsu.

Mila esker, eta adio sekulako. Antton



Nikol  Enea
TABERNA

Amaiako plaza

Tel. 861440



Rakel
apaindegia

kiromasajea
tatuajeak

Aita Mari 42, behea

TEL: 943 862093



Arrain eta
mariskoak

Barazkiak eta
aurrez prestatutako
jakiak

Zuloaga plaza, 1
Tel. 862309



**ALBAITARITZA
KLINIKA**

DIEGO SAN SEBASTIAN BARANDIARAN
IÑAKI GARMENDIA MENDIZABAL

-ALBAITARIAK-

Basadi, 7 behea
Tel. 143310
Tel. mugikorra: 908- 775508

Larrialdiak
- 24 ordu
- zeure etxean

dekorazioa
ALBERDI

966 726188
943 143261

• Eskaiola
• Pladur-a

Berriz ere Iban Barrenetxea irabazle

Iaz bezalaxe aurten ere Iban Barrenetxeak irabazi du gure Baleike komiki lehiaketa, eta elgoibartarrak lehenengo sariaren 50.000 pezetak poltsikoratu ditu, beraz, "Isladak" izeneko lanarekin. Bigarren saria, 30.000 pta-koa Bilboko Patxi Ariasek eskuratu du, "Harrokeria" izenburua duen komikiarekin. Zumaiarrik aurkeztu ez denez, zumaiar onenari zegokion sariaren ordezkari 3. saria ematea erabaki du epaimahaiak, eta ondorioz, Tolosako Javier Navarrok lortu ditu 20.000 pta, "Egun nazkagarria" lanarengatik.

Komikien kalitatea, originaltasuna eta beste zenbait arrazoi kontuan harturik, bi aipamen berezi egin eta bakoitzari 10.000 pta-ko akzesita ematea ere erabaki da, era berean. Aipamena jaso duenetako bat Oñatiko Hiba Garai da (lanaren izenburua "Euskalitatea") eta bestea Azkoitiko Igor Lersundi ("Usteak...").

Epaimahaia Asisko Urmeneta eta Koldo Landaluze komikigileek osatu dute, aldizkariko Antxoka Agirrerekin batera. Guztira 10 lan aurkeztu dira VI. komiki lehiaketa honetara eta onentsuenak Baleike aldizkarian bertan argitaratuko dira. Sari banaketa abuztuaren 29an egin zen, Baleikeko lokalaren inaugurazioko ekitaldien barnean. Iaz hasitako biderei jarraituz, Zumaiako Udalaren babes ekonomikoa jaso du lehiaketa honek.



Patxi Arias, Igor Lersundi eta Iban Barrenetxea, Udaleko eta aldizkariko ordezkarien artean

Lokal berriaren inaugurazioa

Forondako jauregitik herrira salto egitea erabaki dugu, eta lokaltxo bat hartu dugu Paolaldean, Arrangoleta ikastola zenaren alboan. Beharbada gimnasia gutxiago egingo dugu aurrerantzean, ez dugulako gora eta behera ibili beharrik izango, baina ziur lan gehiago egin eta lehen baino askoz errazago topatzen gaituzula lokalean. Helbide eta telefono berriak 3. orrialdean ageri dira.

Abuztuaren 29an egin genuen inaugurazioa eta 30 lagunetik gora etorri zitzaizkigun bisitan: kolaboratzaileak,

lokala prestatzen lagundu dutenak, lankide izandakoak, udaleko zenbait ordezkari, etab. Hitzaldi eta protokolo handirik gabeko ekitaldia izan zen, eta komiki lehiaketako sariak banatu ondoren, jan-edanaren txanda iritsi zen: tertulia gozoan, lokalaren ezaugarriak eta beste hainbat kontu aipagai, Paternina botilak berehala hustu ziren, urdaiazpikoak eta kroketek ere ez zuten asko iraun, bizkotxoa aidean ezkutatu zen eta amaieran kakahuete lehor batzuk besterik ez ziren geratu. Dena primeran joan zen seinale!

Rosi

garbiketak

- * Etxeak eta dendak
- * Enpresa eta auzo lanak
- * Erropa garbiketa eta tintaketa

Basadi, 3-A
Tel. 861670

BELARDENDA
SIWA



Izaga Garcia
DIETISTA

Esther Blanco
OSTEOPATA - MASAJISTA

Basadi, 5-C behea Tel. 143404 - 860012

Alberdi

Gizonezkoen moda



Erribera kalea, 6
Tel. 861155



Ignacio Zuloaga enparantza Tel. 943 861157

Antonio Etxabe



Gizonezkoen
erropak

Zumbillo, 4 Tel. 861407

Mila isun inguru udako hilabeteetan

Dezenteko iskanbila sortu da azken hilabete hauetan gure herriko kaleetan udaltzainak ezartzen ari ziren isun kopurua zela eta. Gidari batzuk kopuruak ez, baina bai isuna jartzearen arrazoiak berotu eta haserretu ditu. Hamaika esamesa entzun ditugu kaleetan, hala nola, etxe aurrean autoa aparkatzeagatik multatu dutela, aurrezki kuxara joan eta pixkat atzeratzeagatik isuna jarri diotela, etab. Isunak ezartzen ari ziren udaltzainek irain ugari entzun behar izan dituzte azken hilabete hauetan. Haserreturik, auto gidari hauetako bat baino gehiago hurbildu da Udaltzaingora bere kotxearen leihoan isun baten papera aurkitu duenean. Beste batzuk aldiz, isun bat baino gehiago jaso ondoren, alkatearengana zuzenean joan dira azalpenen bila.

Udaltzaingoa aipatu digutenez, isun kopurua igotzeak arrazoi bakarra du, Zumaiako udaltzaingoa urtaro honetan plantila handiagoa izateak. Argi utzi nahi izan digute aurreko urteko arau berak mantentzen direla isunak ezartzean. Gogoratu nahi izan digu, herriko erdigunean saneamendu lanak izan direnean arau hauek erabiltzean malgutasun handiagoa ibili dutela udaltzainek. Argitu digute baita ere, lan hauek amaitu bezain laster hasi zirela arauak berriro ere errespetatzen.

Udako hilabete hauetan 1.000 isun inguru ezarri dituzte udaltzainek. Isun



hauetatik erdia baino gehiago Zumaiako bi lekutan ezarri dira, Itzurun eta Larretxo inguruan eta Erribera, Txomin Agirre kaia eta Ignacio Zuloaga enparantzana.

Lehen toki horretan, Itzurun hondartzaren inguruan uda garaian beti ere auto ugari ibiltzen da, eta bertako biztanleentzat amesgaizto bat bihurtzen da aparkaleku bat bilatzea. Bertara hurbiltzen direnak gehienbat kanpotarrak izaten dira, hondartzara etorri nahi eta autoa bertatik bi minutura eduki nahi dutenak. Ezarri diren isunetan agertzen denez, gidari decentek aparkatu du bere autoa auzokoen aparkalekuetan, beste batzuek aldiz, aparkalekua debekatua dagoen tokian utzi dute kotxea. Ugariak dira baita ere, oinezkoen bideetan aparkatutako kotxei ezarri zaizkien isunak, eta izan dira batzuk jardinetan autoa uzteagatik ezarri direnak.

Herriko beste gune iskanbilatsu bat taxien geltoki ingurukoa izan da. Gogoratu behar da azken egun hauek arte, bertan kokatu dela Kosta eta Urolako autobusen geltokia, eta honek

beti ere zaildu egin duela bertako trafikoa. Gune honetan, Erriberan eta Zuloaga enparantzana autoek gehienez 15 minutuz aparkatzea dute ia egun guztian. Udaltzaingoa esanetan, ordu laurden hori baino denbora gehiagoan aparkatzen uzten dute. Hori bai, norbaitek bere autoa "doble filan", oinezkoen bideetan, espaloietan edo elbarrien tokietan kokatzen badu, multa bat aurkituko du autoko leihoan.

Aparkatzearen arazoa asko zaildu da azken urte hauetan, eta ezin dugu beti ere kanpotarrei leporatu erru guztia. Aipatu digutenez, ibilgailu kopurua Zumaian hirukoiztu egin da azken 10-15 urte hauetan, Abuztuaren 22an galdezka joan ginenean, gure herrian 3.659 ibilgailu zeuden auto, moto eta kamioen artean. Zumaiak aparkalekuentzat ez du leku askorik, hori dela eta ohitu egin beharko dugu autoa etxetik zertxobait urrunago uztera. Hori ibilgailuen jabeak, besteok lasaiago ibiliko gara, edo hala espero dugu.

◀ JUAN LUIS ROMATET

ARGIA
ARROPADENDA

Itzurun, 1 Tel. 143224

Arkupe
Okindegia
eta gosariak

Kale nagusia, 2 Tel. 861521

ad **AUTOS ZUMAIA**

Urola plaza 3-5
Tel: 943 86 14 85

Arritokietako Ama Birjinari Koroazioari buruzko liburuxka bat kalean

Hila hasi eta berehala aurkeztu zen Oxford aretoan Aitor Emazabel apaiz gazteak idatziako liburuxka bat. Argitalpen hau 1930 urtean izan zen Arritokietako Ama Birjinaren Koroazioari buruzkoa da.

Liburuxka honen abiapuntua pasa den ekainean Aita Mari zinean pantailaratu ziren bi filma laburretan aurki daitezke. Lehen filma 1924ko txekorketa bati buruzkoa zen, bigarrena, aldiz, 1930 urteko maiatzaren 4ean ospatutako Arritokietako Andre Mariaren Koroazioari buruzkoa zen.

Filma hau abiapuntutzat hartuz, Aitor Emazabelek koroazio honi buruzko xehetasunak aurkitzeaz gain, garai hartako Zumaiari ere bisita bat egin nahi izan dio. Bere argitalpena atal

ezberdinetan banatu du. Lehen atalean koroazioari bide ireki zizkion mugimenduak ikertu nahi izan ditu, eta bereziki Arritokietako Anaidiaren sorrera eta jarduna landu ditu. Jarraian Koroazioaren kronika bat egin du. Kronika honetan han eta hemen bildutako informazioa laburtzen saiatu da. Hirugarren atalean ospakizun hori bizi zuen herria ezagutzen saiatu da. Bukaerako utzi ditu garai hartan gazteleraz idatzitako eranskin batzuek. Eranskin hauek Koroazioa garai zehatz batean kokatzeko balio dute.

Lan hau aurrera eramateko, Aitor Emazabelek Parrokiako artxiboak behin eta berriz mihatu ditu bertan aurkitzen ziren paper zaharretan Koroazioari buruzko datu hauek



aurkitu arte. Idatziekin batera, liburuxkan artxiboan aurkitutako argazki zaharrak ere topa daitezke. Argazki hauekin, gainera, erakusketa bat ere antolatu da Oxforden irailaren lehen egunetan, jendea etengabe erakarri duen erakusketa bitxia izan dena.

◀ JUAN LUIS ROMATET

Txakolinaren eguna

Ez dakigu San Bartolomeri txakolina gustatuko zitzaien, baina oikiarrei bai behintzat! Abuztuaren 24an hura zen edatea! Botila botilaren atzetik, Jon Maia eta Irazu kantari ibili ziren tabernaz taberna, trikitalariak eta talde handi bat lagun zituztela. Azkeneko bueltarako bertsolariez gain, sasibertsolariak eta ordu txikitakoak ere jarri ziren martxan. Bertsolariek, "nekatuta", siesta egitera joan behar izan zutela ere esan digu txoritxo batek.

◀ XABIER AZKUE



AUTO-ESKOLA



ZUMAIÀ



- Gida baimen guztiak ateratzeko baimendua
- Praktika eta azterketak Azpeitian
- GURE HELBURUA: Gidari trebe eta profesionalak egitea

Basadi, 12 behea Tel. 861018



Azkue Autoak


Estazioko kalea, 19

Tel. 861433
Faxa: 861067

Juan Del Campo
Esteibar:
**"Gure
garaiko
espiritua
galdu egin
da"**

Oier Aizpurua piraguista Sydneyko Joko Olinpikoetan ikusteko itzaropena izan dugu zumaiar askok azken urtean, baina ez da posible izan. Hala ere, historian pixka bat arakatu ondoren, olinpikoa izandako beste zumaiar batekin egin dugu topo. Juan Del Campo Esteibar, Londresko Joko Olinpikoetan izan zen 1948an, Espainiako belar hockeyko selekzioarekin. Bere bizitza osoa Donostian egin duen arren, zumaiarra da "jaiotzez eta bihotzez".

Pulpo parean egin nuen zita Juanekin. 77 urte dituen arren, sasoi betean dago oraindik, eta ez zidan inolako arazorik jarri bera Zumaiara etortzeko. Solaserako gogoekin etorri zen, bostekoa eman eta segidan bere bizitzaren pasadizoak kontatzen hasi baitzitzaidan. Londresko Jokoetako oroigarriren bat-edo ekartzeko eskatu nion telefonoz, eta poltsa beteta ekarri zidan. Hainbat kirol federazioetako karnet, argazki eta domina. Juan Del Campo kirol guztietan ona den horietakoa baitzen. "Gaztetan denetarik egiten nuen: saskibaloia, hamaikako



eskubaloia, futbola, igeriketa, ping-ponga, atletismoa, tenisa, belar hockeya... Mendian ere asko ibiliak gara aitarekin, mundu osoan zehar". Belar Hockeyak eman zion, ordea, goi mailan aritu eta 1948ko Joko Olinpikoetan parte hartzeko aukera.

"Garai haiek ez ziren batere gozoak izan", hasi zitzaidan kontatzen. "Pentsatu behar da Espainian gerra zibila egon zela, eta ondoren II. Mundu Gerra gertatu zela. Ingalaterra Jokoak antolatzeaz arduratu zenean gerra amaitu berria zegoen, eta egoera nahikoa zaila zen. Hersturaren Jokoak

izan ziren Londreskoak". Hiri Olinpikoak ez zuen zerikusirik Sydneykoarekin. "Kirolarientzako Hiri Olinpikoa Richmond parkean jarri zuten. Egia esan, egurrezko barrakoiak ziren, gudan RAFeko pilotoei erabilitakoak. Oso apala zen dena. Komunerako joateko ere, barrakoietatik atera beharra zegoen. Hala ere, dena ongi antolatuta zegoela esan behar da".

Sukaldariak lan gutxi

Selekzio gehienek euren janari propioa eraman zuten Ingalaterrara,

han zegoen eskasia ikusita. Espainiak ere bere sukaldaria eraman zuen, baina honek apenas izan zuen lanik. "Sukaldaria eraman genuen, baina ezin izan zuen ezer prestatu, azkenean janaria eraman beharrean koñaka eraman zutelako. Espainiako delegazioak botilak saldu zituen Londresen, diru horrekin zaldiak erosi ahal izateko". "Orduan, zer jan zenuten?", galdetu nion. "Argentinarrak zutena", erantzun zidan. "Giro ezin hobea zegoen herrialde guztietako kirolarien artean, eta argentinarrekin bikain moldatu ginen. Tertuliak egiten genituen, kantatu egiten genuen. Horrela ibiltzen ginen".

Lehiaketan ezin izan ziren finalerdietarako sailkatu, baina Juani bere postuko jokalaria onenaren saria eman zioten (argazkiko domina horren oroigarria da). "Lehiaketa oso ongi antolatuta zegoen, zelai guztiak belarrezkoak baitziren. Han ez zegoen pase bat huts egiterik! Lehen partidua Argentinaren aurka jokatu genuen. Bi jokalaria garrantzitsu falta genituen, eta 3-2 galdu genuen. Gero, Austriarrekin bana egin genuen. Hirugarren partiduan India genuen aurkari, orduko talde onena. Partidu bikaina egin genuen, eta 1-0 bakarrik galdu genuen. Harrigarria zen indiarrek oinutsik jokatzen ikustea. Gero, India izan zen txapelduna, Ingalaterrari finalean 4-0 irabazita".

Beste garai batzuk ziren

Orduko kirol egiturek ez omen dute zerikusirik gaurkoekin. "Garai hartan kirol egiturarik ez zegoen. Kirolariak euren kasa entrenatzen ziren, eta ez zegoen inolako laguntzarik instituzioen aldetik". Juani amorrua ematen dio gaur egungo kirol profesional askoren jarrerak: "Gure garaiko espiritua galdu egin da. Ni harrituta gelditzen naiz futbolisten kexekin. Partidu gehiegi jokatzen dituztela, partidu bat galdu eta morala lurretik dutela... Niri tokatu izan zait aste osoan zerbaitetara jokatu behar izana, saskibaloian ez bazen eskubaloian, edo bestela belar hockeyan. Gabon

egunean, urteberri egunean, ostiral santuan eta jai guztietan entrenatu naiz, eta pozik. Zer gehiago nahi dute? 200 milioi pezeta irabazten dituzte eta egunean hiru orduz entrenatzen dira. Kezkatuagoak daude beste taldeen eskaintzekin jokoarekin baino". Joko Olinpikoak ere asko aldatu dira Juanen garaitik. Bere ustez, gaur egun oso komertzialak dira: "Telebistak eta enpresa handiak sartu dira hor, eta oso komertzialak bilakatu direla uste dut". Hala ere, gaurkoak diruditen arazo batzuk orduan ere gertatzen zirela onartu du. "Dopina lehen ere existitzen zen. Gure taldean bazen mediku bat, jokatu aurretik hiru pirula hartzen zituena. Sinpatina izena zuten, eta garai haietan ikasleek hartzen zituzten azterketa garaian. Aspirinak hartzea ere oso ohikoa zen. Hotza kentzeko koñaka hartzea ere gauza arrunta zen".

Beste hamaika pasadizo kontatu zizkidan, Mari kalean argazkiak ateratzen nizkion bitartean, han baitzuen etxea amona Martxelak. Gero, Aita Mariaren irudiaren azpian agur esan genion elkarri. Egun batzuk geroago, Donostiako San Telmo museoan ikusi nuen bere argazkia, 'Atarian' erakusketarako 2.000 donostiarrekin egindako bilduman. "A ze kasualitatea!", pentsatu nuen hasieran. Segituan ulertu nuen ordea, Juanek han egon behar zuela, halabeharrez.

Ondarretako aitona

Kultura kirola bezain garrantzitsua izan da Juanen bizitzan. Betidanik izan du gustuko eskultura, eta oraindik jarraitzen du horretan, nahiz eta oraingoak hondarrezkoak izan: "Eskultorea izan naiz bizitza osoan. Gaur egun, hondararekin egiten dituzte figurak, Ondarretan. Han izaten diren haur guztien aitona naiz", dio barre eginez. "Egunero joaten naiz hondartzara, eguraldia ona zein txarra izan, nire ariketak egin eta bainu bat hartzera".

Karmengo Ama, 14
E-20749 Arroa (Gipuzkoa)
Tel/Fax: +34 943 14 83 06
e-mail: bakun@euskalnet.net



Bakun
ITZULPEN ETA ARGITALPEN
ZERBITZUAK S.L



**BASUSTA
ERRETEGIA**

Pantxita Etxezarreta, 25 Tel. 862073

**CORO
PRIETO**
Esteticista

Tel. 861322
Bonifazio Etxegarai plazatxoa z/g

EGOKI



*Erloju
eta bitxidenda*

E. Gurrutxaga plazan



Basadi Auzategia, 9-A 2-B

Arantza Aramendi
EGUZKI
G. INMOBILIARIA

Harategi kalea, 25 behea
943 86 22 65 - 609 46 56 37



"Zumaiako historia idatzita daukat"

B Juan, zure bizitza osoa Donostian eman duzu, baina zumaiarra zara jaiotzez.

Nire amona Martxela Manterola zen. Nire ama oso txikitatik Getarira joaten zen oinez lanera. Gero, Donostiara joan zen, etxe batera zerbitzera, eta nire aita ezagutu zuen, Roberto Del Campo. Ezkondu egin ziren, eta amona Martxelak esan zion amari lehen bi semeak Zumaian izan behar zituela. Bera emagina zen, oso ezaguna, eta anaia Roberto eta ni Zumaian jaio ginen. Parrokian bataiatu gintuzten, baina gero Donostiara bueltatu ginen, eta beti han bizi izan naiz. Nire aitak burdina lantzeko tailer

bat zuen, eta arrakasta handiko gizona zen.


B Nolako harremana mantentzen duzu Zumaiarekin?

Aperribaitarrak senideak ditut, Karlos lehengusua dut. Gero, lagun handiak

ditut Telleriatarrak, txikitatik ezagutzen baitituz. Haurra nintzenean gogoratzen dut amonak bainujantzia kentzen zidala, Arbustaingo guatik salto egin ez nezan, baina guri berdin zitzaigun eta larru gorritan egiten genuen jauzi. Osaba Anjelek ontziola

Igeriketako estilo berria

Gazte garaian entrenatzaile gutxi omen zegoen, eta zeudenak gauza bitxiak probatzen saiatzen ziren: "Igeriketan ari nintzenean, behin Pako Yoldi entrenatzailea etorri zitzaidan, estilo berri bat erakutsi nahi zidala esanez. Japoniar batek asmatu-rikoa omen zen. Alboka egindako krola zen, azken finean. Bular gainean etzanda egin beharrean, alboka jarrita egin behar zen, horrela ura hobeto mozten zelakoan. Fortuna Klubean, banku baten gainean jarri ninduen eta orduak eman nituen estilo hori praktikatzeko. Horrelako gauzak egiten ziren orduan".



AXIER KIROLAK

Ortega y Gasset, 2
Tel: 943 86 22 06



**OSKARBI
KIROLAK**

Alai Auzategia, 14 behea
Tel: 943 14 31 12

ENARA, S.L.
INPRIMATEGIA



Amaiako plaza, 15
Tel. 862458

zuen, ia paolean, eta han bota eta herriraino etortzen ginen igerian. Gogoratzen dut behin ikatza zekarren ontzi bat Santixon gelditu zela, ez atzera ez aurrera, eta han joan ginen guztiok, ikatz bila.

B Gaur egun ere mantentzen duzu harremana zure herriarekin.

Bai, Pulpora etortzen naiz festak direnean. Gainera, niri asko gustatzen zait erdi aroko historia ikertzea, eta Zumaiaiko historia idatzita daukat. Zumaiaiko Udalarari entregatu nion liburutegian edukitzeko, eta esan didate San Telmori buruz egindako lana dagoela bakarrik. San Pedroko parrokiari buruz idatzi dut, karmeldarrei buruz, eta beste hainbat kontuei buruz ere bai. San Telmo egun batean entregatu nizkien eskura. Justa tabernan dokumentu guztiak.

◀ **GORKA ZABAETA**

'Juan Ruta' Donostiako Orfeioan

Hamaika mila gauza egin ditu bere bizitzan Juanek. Kirolari izateaz gain, kirol kazetaria ere izan da urte askotan: "Hogei urtez txirrindularitzako kazetaria izan naiz. Juan Ruta ezizenarekin ezagutu izan naute beti. Nire anaia Gipuzkoako Federazioko presidentea izan zen, eta hamaika proba antolatu genituen. Urte askoan egin nuen lan Diario Vascon. Horretaz gain, 45 urtez Donostiako Orfeoiko bakarkako tenorea izan naiz, eta Juan Gorostidi maisuaren alabarekin ezkondu nintzen. 1986an utzi nion kantatzeari, Antxon Aiestaran hil zenean, baina Orfeoarekin harremanetan jarraitzen dut".

Nolatan belar hockeyan?

"Behin ping-pongean ari nintzela gure klubean (CAPU), hockey taldean bat behar zutela esan zidaten, eta hantxe joan nintzen, Amarako zelai zaharrera. Lurrezkoa zen, noski. Makila hartzen nuen lehen aldia zen, baina ongi moldatu nintzen, posizioak ezagutzen baintuen gutxi gorabehera, futboletik. Hemeretzi urte nituen orduan. Bizpahiru urte egin eta gero, teknika oso ondo dominatzen nuen, eta sasoi soberan nuen. Hamaikak Bat taldean jokatzen hasi nintzen. Espainiako Txapelketan parte hartzeko geure poltsikotik jarri behar izaten genuen dirua. Taldeko gehienak nahikoa helduak ziren, eta txapelketa oporraldi gisa hartzen zuten. Ni ordea, oso gaztea nintzen eta serio lehiatu nahi nuen. Bilera batean esan nien ni ez nintzela joango serio ez bazuten hartzen. Eta hala hartu zuten. Kanean topatzen nituenean beti mostoa edaten ikusten nituen. Eta Txapelketa bikaina egin genuen. Hortik aurrera nabarmentzen hasi nintzen. Hamaikak Bateko Javier Arbide zen Espainiako hautatzailea, eta berari esker Espainiarekin debutatzeko aukera izan nuen. Berak Joko Olinpikoetara eraman nahi ninduen, baina horretarako oztopo bat gauditu beharra zegoen. Bazen garai haietan botere handiko familia bat belar hockeyan, Jardon sendia. Haiekin gaizki moldatuz gero, ez zegoen zereginik. Nire lehen partiduan asistentzia mordoa eman nizkien eta taldean onartu ninduten".

ERTZ informatika



ORDENAGAILUAK
CD-ROM
INTERNET



Eusebio Gurrutxaga, 6 Tel. 943 14 33 95



Auto-konponketak
ELKAR

Estazioko kalea Tel. 943 86 02 01



PEUGEOT



elektrizitatea, s.l.

instalazio elektrikoak
instalazio musikalak
antenak - parabolikoak
akumuladoreak
portero automatikoak
telefonía

Televés
Instalador
Oficial

MoviStar

MoviLine

CANAL+

CANAL DIGITAL

Erribera, 18
20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel./Faxa 943 - 143097
629 - 450777

expert



ELEKTROGAILUAK

MERTXE AIZPURUA

Etkezaretza, 6 Tel. 861078

Hiru egun San Telmoren jaioterrian

Orain hilabete batzuk ezohizko proposamen bat jaso nuen nire arreba Miriam eta Maria Eugenia Arrizabalaga zinegotziaren eskutik: "etorriko al zara gurekin Frómistara?". Zertara joan behar genuen Frómistara galdetu nien nik, ez bainekien zer asmo zituen Udalak gai honekin. Aipatu zidatenez, bi herrien artean senidetze bat gerta liteke. Frómista eta Zumaia senidetu? Zergatik? Zer galdu zaigu Gaztelako lautada erdian? Misterio hau argitzeko asmoarekin baiezkoa eman nien. Gainera, ziur juergatxo batzuk botatzeko aukera ere bazegoela...

Misterioa, ohi den bezala, ez zen misterioa. Bi herrien arteko senidetzen arrazoa San Telmoren figuran zegoen. Guk Zumaian hainbeste maite dugun San Telmo, eta bere ohorezko festetan hainbat gogoratzen duguna, Frómistan jaio zen Pedro González Telmo izenarekin eta Pontevedrako Tui herrian hil zen hurrengo mendean. Ze urtetan jaio eta hil zen ez daude oso ziur, berataz argitaratu diren liburuek ez baitute informazio hau ziurtzat jotzen.

San Telmok hiru herri ezberdinetako hiru puntu lotzen ditu. Galiziako Tui eta Frómista senidetuta daude 1985 urtetik. Orain zumaianren txanda da. Nahi al dugu senidetu? Ez dugu nahi? Zer nahi dugu? Hau dena erabakitzeke Frómistara goaz Tui, Frómista eta Zumaia elkartzen dituen lehen bilerara. Misteriorik ez, baina juergatxoa seguru!

Abuztuak 25, ostirala. 14.00: irteera.

Abiatzera goaz. Gure aurrean errepide zabal bat dugu eta lau ordu inguruko bidaia luzea. Autobusean 15 lagun inguru goaz, Udaleko ordezkari eta familiak, olarro zopa prestatu behar duten sukaldariak, Zumaiaiko Telmoen ordezkaria eta ni neu. Denok pozik goaz Palentziarantz, aurrean zer espero digun ideiarik ere ez dugula, baina bai ezohizko asteburu bat pasatzeko asmoarekin. Autobusaren ateak itxi dira, bagoaz.

18.15: heldu gara!

Behingoz heldu gara. Gogorak egiten dira halako bidaia luzeak, gainera ia denbora guztian lautada bat besterik ez duzunean leihotik kanpora, eta nora begiratu ez duzula. Bidaia laburragoa egiteko, gidariak pelikula bat jarri digu bideoan: "La máscara del Zorro"... Antofñito Banderas... glubs...



Frómista 1.000 pertsona inguruko herri polit bat da. Kale zuzenak, bi solairutako etxeak, hiru eliza, etab. Nekazaritza bizi den herri bat da Frómista, baina turismoari ere zabaldu nahi dizkio ateak. Bertatik pasatzen da Santiagoko bidea, eta hori aprobetxatzen hasi nahi dute. Hain herri txikia izanda ere 125 bat ohe dituzte hotel, alberge, pentsio eta halakoetan kanpotik etortzen diren bisitariarentzat. Guk Zumaian ditugunak baino gehiago.

Frómistara heldu bezain laister lo egiteko gelen bila goaz. Batzuek enparantza ondoko hotelean egin behar dute lo, beste batzuek pentsio batean eta badira batzuk etxe partikular batean gaua pasa behar dutenak. Hau sinatzen duenak alberge batean egin behar du lo, lehen gauan gainera Tui-koak izango ditut bizilagun bakarrak. Aukera ederra jendea ezagutzeko. Albergeaz arduratzen den neska

Foto **Amertze**

**profesionalak gara
etor zaitez!**

Erribera kalea, 6 Tel./Faxa: 943 861707

Galdona



Mendaro marinela, 1 Tel. 861117 -143346
Juan Belmonte, 15 Faxa. 861330

GANBARA

Taberna

Juan Belmonte, 5 Tel. 943 86 10 57

batek alberge guztia erakutsi dit: sukaldeak, komunak, logelak. Orduan konturatu naiz zumaiarren eta galiziarren gelen artean ez dagoela aterik. Seguru al gaude?

19.30: harrera.

Frómistako udaletxearen aurrera hurbildu gara bertan izango den harrera ofizialerako. Udaletzeko balkoian hainbat bandera daude jarriak, haien artean gure ikurrina eta Galizako bandera, biak ere piperpo-toaren ondoan. Udaletxea, banderak, gu eta herritarrak zelatatzen guardia zibilak. Hau da hau, guardia zibilak gu zaintzen, zer ikusi behar dugun. Aipatu digutenez, galiziarrek nahiko berandu atera dira Tui-tik eta harrera honek atzerapen bat izango du. Pena handirik gabe taberna baten bila abiatu gara zumaiarrek.

Taberna bidean San Telmoren estatua batekin egin dugu topo. Estatua honek lepoan zapi txuri-urdina du, azken santelmoetan Zumaiako Telmoek ezarri ziotena, eta oraindik ere bertan irauten duena. Ondoko tabernan edari batzuk hartu ondoren, Udaletxe aurrera hurbidu gara berriz. Galiziarren berririk ez, eta Frómistako alkatea nerbioak agerian dituela. Zer egingo dugu ba, goazen tabernara.

21.30: heldu dira galiziarrek

Azkenean azaldu dira Tui-ko ordezkariak. Bi autobus bete dituzte galiziarrek eta ia denak jubilatua dira. Besarkada batzuk, zer moduz zaudete batzuk esan eta denak San Martin elizara joan dira zuzenean. Bertan Don Antonio Nuñez y Nuñez delako bat San Telmori buruzko hitzaldi bat ematen ari da. Hitzaldi honek arratsaldeko zortzietan hasi behar

zuen, baina atzerapenak direla medio gaueko 10etan hasi da. Agian interesgarria izango zen hitzaldia, baina tripak marmarka hasi zaizkit gosea dela eta, eta ez zaio jaramon handirik egiten. Hitzaldiaren ondoren, eta afaria heldu arte, txikiteoa. Hobe izango genuen txikiteoarekin jarraitzea, bi orduko atzerapena dela eta afaria guztiz pasatua baitago. Bertako eskolako jangelan sartu gara kanpotar guztiak, hau baita gu denok sartzen garen leku bakarra. Jangelako hormak espreski dekoratu dituzte hiru herrietako irudiekin.

Amaitu da behingoz afaria. Egitaraua begiratuta, orain ipuin kontaketa saio bat dugu San Pedro elizaren aurrean. Su baten aurrera hurbildu bezain laster hasten da ekitaldia. Bost minutu geroago zumaiar batzuek alde egin dugu, hura benetan jasangaitza baita. Azken trago bat hartu eta lotara.

03.00: galiziarrek marruka.

Albergeko ohean jira eta bueltaka egon ondoren, azkenean postura hartu eta lo egiteari ekiten diot. Dena alferrik, galiziar batzuk heldu baitira. Marruka, garraisika sartu dira. Dantza taldeko gaztetxoak dira. Halako batean norbait konturatu da alboko gelan gizarajo bat lo egin nahian dagoela: "Callaos, que hay un peregrino durmiendo". Peregrino? Erromesa ni? Gauza asko entzun ditut nire aurka, baina erromesa deitzea ere... "No es un peregrino, es uno de Zumaia, el periodista". Hay la ostia! Nola dakite hauek ni kazetari moduan etorri naizela?. Beno, isildu egin dira behintzat. Agian zer idatziko dudan beldur izango dira.

05.00: galiziarrek bonboa jotzen

BOM, BOM, BOM

Beste galiziar talde bat heldu da albergera, eta hauek hitz egitearekin nahiko ez eta bonboa jotzen hasi dira. Non sartu naiz?

Abuztuak 26, larunbata

08.30: diana.

Oraindik begiak itxita ditudala Vivaldiren "Lau Urtaroen" musika entzuten dut. Arraroa benetan. Begiak zabaldu ditut. Leihoaren zirrikitutik argia sartzen da. Goiza da. Ez dut ia lorik egin. Vivaldiren ondoren, rantxerak... Jalisco, no te rajes!!! Hau gutxi balitz aurreko eguneko neska gelaz gela dabil jendea esnatzen. "Juan Luis, que cara de sueño tienes!" Honek jakingo balu.

Garbitu eta gosalduta ondoren kalera. Egitarauak dioenez eskualdeko herri batzuk ikusi behar ditugu. Beno, gure autobusak alde egin duenez, ezingo dugu bira honetan parte hartu. Zer? Nola? Galiziarren autobusean lekua dagoela? Beno, zer egingo diogu ba.

10.00: eliza batetik bestera.

Hiru herri bisitatu ditugu: Astudillo, Santollo eta Támara. Benetan harri-garria da. Oso herri txikiak dira eta izugarritzko altxor artistikoa dute. Támarak adibidez, 150 biztanle inguru ditu, eta herri erdian katedral eder bat dauka. Guztira bost eliza ikusi ditugu goizean zehar. Lehenak interesarekin hartzen dira, baina hirugarrenaren ondoren, nekea nagusitu egiten da. Hala ere izan dugu morboarentzat lekua. Gidari bezala dabilen lagunak esan digunez, alboko herrian, Santollon, gaixotasun arraro bat izan zuen apaiz bat dago. Ez omen zaio



**KAFETEGIA
GARROA
JATETXEA**

TXOMIN AGIRRE KAIA
TEL. 943 86 21 81



GAZTE, S.L.
ELEKTRIZITATEA
ARGIDENDA

Era guztietako instalazioak etxebizitza, fabrikoi eta herriko arzetan

Izaga, 1 behea Tel./Faxa: 143402 TAILERRA: Estazioko kalea, 24
Tel. mugikorra: 908 -143409

bizarrik ateratzen, ahotsa ezberdina du eta titiak atera omen zaizkio. Hau morboa hau! Han dago apaiza, eta bai, emakumea dirudi. Buñuel-en mendeurrenean, surrealismoa.

14.30: bazkari herrikoa.

Alkate eta zinegotziak herriko jatetxe onenean bazkaltzen ari diren bitartean, gu berriro ere eskolako jangelara goaz. Aurreko egunarekin konparatuz, janaria hobea da baina ezin esan primerakoa denik. Kafe bat hartu ondoren, albergeko gelara noa siestatxo bat egitera, gaua ziur luzea izango baita.

17.00: galziarrak arropa aldatzen.

Ohe gainean etzanda nagoela, Tui-ko neska gazteak alboko gelan sartu dira. Bi gelen artean aterik ez dagoenez dena entzun eta ikus dezaket. Arratsaldean izango den jaialdirako arropak aldatzen hasi dira. Harrigarria da beraien jantzi tradizioaletan zenbat arropa kapa dituzten. Neskak oso era txukunean jantzi ondoren, eta oso polit ageri direla Zumai txaranga heldu da albergera. Beraien lehen galdera: "Zer moduzko giroa dago hemen?" Hauen asmoak zein diren oso argi uzten duen galdera. Denok santelmoetako arropa jantzi, eta kalera.

18.00: jaialdia eta olarro zopa.

Aurreko egunean lanean hasi ondoren, arratsalde osoan dihardute Zumaiako sukaldariak olarru zopa prestatzen. Pauso guztiak banan-banan jarraitu eta arratsaldeko 7:30etarako prest eduki nahi dute jakia. Zopa bultzatzeko Zumaiatik eramandako sagardoa izango dute edari moduan bertara hurbiltzen direnek.



Jaialdia San Martin plazan ospatzen da, izen bereko eliza erromanikoaren ondoan. Eliza hau Frómistako altxorra da, ederra bai kanpotik eta bai barrutik. Jaialdian bertako gazteek, Tui-ko dantzari eta gaiteroek eta Zumaiako txarangak hartzen dute parte. Saio alai baten ondoren, janari eta edariaren txanda, bai plaza bertan eta baita inguruko taberna eta elkarreetan. Gu, noski, oso gustura, eta bertako biztanleak zer esanik ez, ia ez baitzuten ia ezer utzi.

21.30: afaria.

Gogoz kontra, afaritara bidali gaituzte Frómistakoek. Aurrekoetan bezala, janaria nahiko eskasa da. Zer egingo dugu? Afaria pattal-pattal dihoala, Zumai Txaranga sartu da jangelan eta esan liteke su eman diola eskolari. Denak jaiki, batzuk dantzan, besteak saltoka, festa dugu Frómistan. Eskaerei kasu eginaz, San Telmo martxa jo du txarangak. Zumaiarren begietan malkoak ageri dira.

Gu jangelan txarangarekin afaritan ari garela, hiru herrietako alkate eta zinegotziak bilera batean daude hiru herrien arteko harremanak sendotzeko asmotan. Aipatu denez, zumaiarrak izan dira gehien hitz egin dutenak, eta kastigu bezala baliteke hurrengo urtean bilera hau Zumaiaren egitea.

22.30: Ole eta berbena.

Kalejiran San Pedro elizara hurbildu bezain laster, Ole-ren errepresentazioa hasten da. Oso zaila da Ole zer den azaltzea. Frómistako jende denak parte hartzen duen prozesio antzeko zerbait da Ole delako hau. Ohizkoa omen da 6-7 ordu irautea prozesio honek. Guri laburpen txiki bat eskaini nahi izan digute... bi ordu eta erdi iraun duena.

Olearen ondoren berbenaren txanda da. Taula gainean Asturiasko Santa Monica taldea dago "con movimiento sexy"-dun kanta bat bestearen atzetik jotzen. Taldearen buru, eta bertako gizonetzko denen begiradak jasoz

GIZARTEKINTZA zentru soziala

KAFETEGIA - JATETXEA

- Eguneko menua
- Plater Konbinatuak
- Kaxuelitak
- Kuadrillentzako afariak

• denontzat irekia

Eusebio Gurrutxaga plaza, z/g Tel. 943 86 17 00



Gipuzkoako Foru Aldundia
Gizarte Zerbitzuetarako departamentua



Amaiaiko plaza z/g

Tel. 860959

kubatar itxurako neska bat. Plazaren beste aldean, aldiz, galiziarrek queimada prestatzen. Zumaiarrak plazaren bi ertzetan pozik.

Berbenak goizeko bostak arte iraun du. Hotela eta albergea plazaren ondoan daudenez, erretirada egin dutenek lo egitea kenduta beste edozen gauza egin behar izan dute entzuten zen burrunda dela eta. Goizaldean galiziarren marruei erreleboa zumaiarrek hartu diete. ¿Donde están las mujeres?. Tui-ko neska gazteak ezkutaturik. Euskaldunak ez gara galiziarrek baino gutxiago izango marruak egiteko orduan.

Abuztuak 27, igandea

09.30: diana.

Vivaldi, rantxerak eta gelatik gelarako bisitak. Buruko mina eta tripa nahastuak nagusi dira albergean. Gosari sendo bat hartu eta bagoaz kalera, goizez herrian zehar egingo baitugu bisita, bertako altxor kulturalak miatuz.

13.00: bermutaren ordua.

Frómistako bi eliza, Canal de Castilla eta Museo Etnografikoa bisitatu ditugu. Lekuak eta gaiak interesgarriak dira, baina egia esan, igande eguzkitsu bat da, bizpahiru ordu besterik ez dugu lo egin eta beste zerbaitek egiteko gogoaz dugu.

Zumaiarren taldea sakabanatu egin da. Txarangakoak elkarte batera doaz zerbaitek hartzera, talde bat, alkate eta zinegotziak buru dituztela mezatara doaz eta beste batzuk kanpoan geratu gara, bermutaren ordua baita. Terraza batean eserita gaudela, telefono



mugikorraren bitartez esan digute Telmo Deunak Orioko Ikurrina irabazi duela. Iujuuuuuu! Albistea ahoz aho dabil eta zumaiarren aurpegian poza agertzen da. Irabazi, non eta Orion. Je, je, je. Mezaren ondoren Páramo taldearen emanaldia dago elizan. Talde honek Gaztelako musika tradizionala jotzen du. Baliteke 5-10 minututan ondo egotea, baina emanaldiak ordu eta laurden iraun du, jasanezina bihurtu da. Elizatik atera eta txarangaren musikarekin kalejiran bazkaltzera goaz.

14.30: bazkaria.

Azken eguna denez, bazkari ederra aurkitu dugu mahai gainean. Urdai azpikoa, solomoa, txorixoa, arkumea, dena primerakoa. Bazkariaren ondoren hitzaldien txanda da. Tui-ko alkateak, Rikardo Peñak, eta Frómistakoak hitz egin dute. Jarraian opariaren eskaintza dator. Ondoren musikaren txanda. Gure zoritxarrerako Páramo taldekoak hemen dira berriro, eta pare bat kanta abestu dituzte. Eskerrak

Tui-ko gaiteroek eta Zumaiako txarangak protagonismoa hartu duten. Bi hauek, txandaka, jendea dantzan jarri dute. Gasolinak irauten duen bitartean, hor dihardute musikariek

19.00: agurrak.

Bagoaz berriro etxera. Ederki pasa dugu Frómistan, baina egia esan etxeko ohera bueltatzeko gogoaz ere badugu. Agur bat hemendik, beste bat handik eta berriro ere errepidera. Beste lau orduko bidea dugu aurrean, eta laguntzaile Mel Gibson eta "Arma Letal 4". Zumaiara heltzerako gaueko 11k dira. Autobusetik jaitsi eta etxera.

Aipatu zenez, bilera hauek jarraipena izango dute datozen urteetan. Oraindik erabaki gabe omen dago non egingo den bigarren bilera, Tui-n edo Zumaian. Ez dio axola non egiten den, beti ere halako jende alaiarekin batzen bagara. Aupa San Telmo!

◀ JUAN LUIS ROMATET

Gure txokoa

• taberna •

kaxuelita eta pintxo ezberdinak

San Pedro kalea

English School
Harvest

Ingelesko klaseak adin guztietan
San Jose, 11 bis Tel. 943 143334



BALEIKE

2000ko iraila. 71. zenb.

Kontxatik kanpo baina Orion irabazita

laztik gora egin du
'Telmo Deun'ak eta
maila polita erakutsi

Egun batzuk lehenago Colindres-ko ikurrina irabazi ostean luzaroan gogoratuko den ezustekoa eman zuen 'Telmo Deun'ak abuztuaren 27an jokatu zen Orioko estropadan. Orio zen faborito nagusia. Denboraldi hasiera kaskarra egin ondoren abuztuko estropada guztiak irabaziak zituen, tartean Zumaiakoa. Joan den urtean ere Orikoa eurek irabazi zuten, eta herrian zilarrezko kopa eder bat zeukaten gordeta bi urte jarraian irabazten zuen traineruari emateko. 'Gorriek' irabazi, ordea.

Zumaia, Ondarroa, Donostia-Arraun eta San Pedro irten ziren lehenengo txandan. Aita Marikoak hasieratik jarri ziren estropadaburu, Donostia-Arraun eta 'Antiguako Ama' gertuan zituztela. San Pedro itxura antzean.

Bigarren luze ikusgarri baten ondoren zuloa ireki zuen 'Telmo Deun'ak. Ordurako antzematen zen patroilanen erabakigarritasuna, itsasoa nahasia zela eta batik bat barrurako bidean trainerua zuzen eramateko ere nahikoa lan baitzuten.

Helmugan denbora kaskarrak markatu zituzten itxuraz; hogeita bi minututik gora Zumaiak.



Bigarren txadan olatua ez ezik haizea ere gogor jotzen hasi zen. Astillerok estropada ona egin zuen eta tanda eskuratzeaz gain bigarren denbora onena izango zena markatu zuen Zumaiarengandik hogeitasegundora. Donibaneko, Trintxerpe eta Isuntza oso atzera.

Itsasoa geroz eta haserreago, urak geroz eta harrotuago, eta hirugarren txanda hasterako printzipioz pentsaezina zena, Zumaiak irabaz zezakeela, hasi ginen pentsatzen.

Animoso atera ziren Orio, Koxtape, Hondarribi eta Castro, baina alferrik. Itsasoa beldurgarri zegoen eta nahikoa lan zuten aurrera egitearekin. Irudi ikusgarriak eskaini zizkigun estropadak, traineruak birritan jarri baitziren olatu artean trabeska. Azkenean denak bi minututik gora galdu zituzten Zumaiarekiko.

Katxaperoak entzun ziren herrian, eta zenbaitek pañuelo gorria jarri zuen balkoitik zintzilik. Urteak ziren 'Telmo Deun'ak horrelako balentriarik egiten ez zuela eta ospatu egin behar.

Lenengo txandako traineru batek estropada irabaztea ia inoiz ez da

ikusten. Egia da eguraldia lagun izan zuela Zumaiak, baina horrek ez ditu arraunlarien meritua eta zaleen poza kentzen.

Kontxarako kanporaketa.

Colindres eta Orioko ikurrinak irabazi ondoren jendea itxaropentsu zegoen herrian Kontxarako kanporaketarako. Batik bat, metereologoez zioten bezala itsaso txarra eginez gero sorpresak egon zitezkeen.

Honela, gorri asko hurbildu zen Kontxako badiara.

Itsasoa bare egon zen ordea kanporaketan eta Zumaiak ez zuen egun oso ona izan. Hamabigarren gelditu zen, zazpigarren sailkaturik Kontxarako azken txartela eskuratu zuen Hondarribiarengandik lau segundora.

Traineruen arteko diferentziak geroz eta txikiagoak direla ikusi zen hogeita lau segundoren barnean sartu baitziren lehenengo laurak. Seigarretetik hamabigarrenera sei segundoren barnean.

Orio, Trintxerpe, Tiran, Donibaneko, Astillero, Koxtape eta Hondarribia

ilarzi
Alai auzategia, 2
Tel. 943 14 33 24

**INPERNUPE
ELKARTEA**
Erribera kalea Tel. 861523

**ILEAPAINDEGIA
IRUITZ**
San Telmo, 12
Tel. 860760

sailkatu ziren, orden honetan. Hauei Donostia Arraun gehitu behar zaie. Irailaren 3an izango da lehenengo jardunaldia, eta 10ean bigarrenkoa.

Denboraldia

Trainerillen Gipuzkoako Txapelketa irabazi ondoren traineruarekin ere denboraldi polita egin du Zumaia. Euskal A ligarako sailkatu zen 'Telmo Deun'a, eta onenen artean aritu da lehia.

Gorantz doan trainerua dela ikusten da gainera. Joan den urtean azkenbigarren egin zuen A ligan, eta aurten Donosti Arraun eta Ondarru utzi ditu atzean. Lenengo txandan nagusi izan da eta bigarren txandako traineruen aurretik sartzeko gai dela ere erakutsi du Trintxerpe, Donibaneko eta Isuntzari birritan irabaziz. Bi ikurrinez gain bosgarren postu batzuk ere egin ditu, Zarauzko ikurrinan esaterako Koxtaperi, aurre hartuaz.

Orioko ikurrina. Sailkapena

1.	Zumaia	22:36
2.	Astillero	20ra
3.	Ondarroa	24ra
4.	Donostia Arraun	31ra
5.	Donibaneko	33ra
6.	Trintxerpe	48ra
7.	Isuntza	49ra
8.	San Pedro	53ra
9.	Koxtape	1:57ra
10.	Orio	1:58ra
11.	Hondarribia	2:06ra
12.	Castro	2:27ra

Euskal A liga. Sailkapena.

1.	Koxtape	8'9
2.	Astillero	8
3.	Hondarribia	7'77
4.	Castro	7'72
5.	Orio	7'36
6.	Isuntza	6
7.	Donibaneko	5'72
8.	Trintxerpe	5'09
9.	Zumaia	4'72
10.	Donostia-Arraun	4'27
11.	Ondarroa	3'48

Bermeon irailaren 14ean

◀ **ANTXOKA AGIRRE**

AROZTEGIA

Urola 2000, s.l.

- *Eraikuntzen akabera eta dekorazioa
- *Baserrien zaharberritzea
- *Enbarkazio konponketa
- *Ate, zokalo tarima eta pertsianak
- *Armairu enpotratuen aurrealdea
- *Aroztegi metalikoa

Basusta bidea z/g Tel. 143505



Argazki eta bideo erreportaiak
Errebelatzeak
Kamarak
Musika

Erribera kalea z/g Tel. 861705

ESTAZIO KALAN, 25 20.750 ZUMAIA
GIPUZKOAN KALAN, 33 C 3ª 20.800 ZARAUZ
(GIPUZKOAN)
Tel. (943) 86 07 78 - (943) 14 09 40

TXINGURRI
Koop. Elk.

Jardinen diseinu
... mantenimendua
Nekazaritza zerbitzuak
Kirazelaen mantenimendua
Txostenak ...
ahokularitza teknikoak,
Bolorazioak

Nekazaritza Injeneru Teknikoak

TXOKO ABERNA

Artadi auzoa
Tel. 862189

Ur-gintza s.l.

SANEAMENDUA - KALEFAKZIOA - GAS INSTALAKUNTZAK
GAS NATURALA - INPERMEABILIZATZEAK
ERAIKUNTZA LANAK - BAINUGELAK
SUKALDEKO ALTZARIAK

Iraeta auzoa z/g Tel. 148082
20740 IRAETA - ZESTOA Faxa: 148124
78 postakutxa

SOLOZABAL AUTOESKOLA

- Klase teorikoak zein praktikoak norberak nahi dituzenean
- Klase teoriko ikusentzunezkoen abantailak erabilita
- Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko eta nazioarteko agentzietarako ziurtagiriak lortzeko ikastaroak

fidatzeko baimen guztiak

P. Etxezarreta, 19 bis Tel./Faxa: 861416

INMOBILIARIA

TALI

BIDAIK

Ortega y gasset, 1 Tel. 143361 - 143323

ITSASKI

SUPERMERKATUA

Urumea kalea z/g
Tel. 143058

ITSY-BITSY

SCHOOL OF ENGLISH

Ingeleseko klaseak maila guztietan
Cambridgerako azterketak

Basadi, 2 Tel. 862373

Itzurun

ATEAK

Itzurun zuhaitzbidea, 2
Tel. 861565 - 143446

Ibai Iriondo Espainiako txapeldun

Iban Iriondo txirrindulari zumaiar gazteak marka guztiak hausteari ekin dio azken denboraldi honetan. Aldizkari honen aurreko zenbaki batean aipatzen genuenez, orain aste gutxi amaitu den denboraldi honetan, Iban Iriondok sekulako garaipen kopurua lortu du. Eta ez hori bakarrik, lasterketa ugaritan mendiko saria ere etxera ekarri baitu. Hau gainera 16 urte besterik ez dituen gazte bat izanda. Iban, horrekin gustura ez, eta pasa den uztailaren amaieran jokatu ziren Espainiako txapelketan garaile suertatu zen, bai banakako lasterketan eta baita taldekakoan ere, Euskadiko taldearekin.

Txapelketa hauek Valentziako Cheste herrian jokatu ziren uztailaren amaieran. Iban Euskadiko taldearekin hurbildu zen proba honetara, eta lehen aldia zen halako mailako txapelketa batera hurbiltzen zela. Ibanek bi probatan parte hartzeko asmoa zuen: taldekako erlojuz kontrako proba eta banakakoa 60 kilometroko zirkuitu batean.

Lehen proba, erlojuz kontrakoa, uztailaren 19an korritu zen Cheste herriko ibilbide gorabeheratsu batean. Iban berak aipatu digunez, ibilbidea hemengoekin konparatuz oso ezberdina zen, Valentziakoa askoz ere gogorragoa baitzen. Lau kideko talde bakoitzak 22 kilometroko ibilbide bat bete behar zuen maldan gora eta



behera. Euskaldunak nagusi izan ziren erlojuz kontrako proba honetan, eta bigarren postuan sailkatu zen taldeari 25 segundoko alde atera zion. Proba honetan lortu zuen Ibanek bere lehenengo urrezko domina.

Banakako lineako proba uztailaren 22an jokatu zen, hau ere Cheste herrian. Herri honen inguruan eratu zuten antolatzaileek 60 kilometroko luzera zuen ibilbide bat. Txirrindulari gazteek erosotasun gutxi aurki zezaten, lau mendi sartu zituzten zirkuituan, eta beraz oso ibilbide gogorra eratu zuten. Kadete mailako zumaiar gazteak ederki eutsi zion lasterketako lehen kilometroetan. Halako lasterketetan gertatu ohi den bezala, ihes egiteko saiakera ugari izan ziren ibilbide guztian. Hala ere, azken mendian erabaki zen Espainiako txapelketa. Ordura arte pelotoiak tinko eusten bazion ere, mendi tontorrera heltzean 12 besterik ez ziren lasterketa buruan. Argi geratzen zen 12 horietako bat izango zela garaile, eta hala izan zen. Txapelketa sprintean erabaki zen eta bertan Iban

Iriondo izan zen lehena, bigarren Castilla La Manchakoa heldu zen eta hirugarren nafar bat.

Txapelketa honetan Euskadiko taldea lehena izan zen, domina gehien jaso zuen selekzioa izan baitzen. Ibanek lortutako bi dominei pistako taldeak lortutakoak batu behar zaizkie, hauek ere txapelketa bikaina bete baitzuten.

Aurtengoan Ibanek kadete mailako bigarren urtea bete du. Datorren denboraldian jubencil mailara salto egingo du. Baliteke maila berri honetan ez izatea kadetetan izan dituen erraztasunak, baina ziur hala ere maila bikaina erakutsiko duela. Hala espero dugu behintzat.

◀ JUAN LUIS ROMATET

Alemanez ZARAUTZEN

Irailaren 19tik aurrera
matrikula zabalik

K. Nagusia 38, 2. bulegoa
Tel. 943 83 56 09

ITZURUN
KIROLAK

Amaia plaza, 13 Tel. 860758

ileapaindegia
I Z E T A

Urumea, 6 Tel. 862083

Larrañaga
Juanjo

HARATEGIA URDAITEGIA

Basadi auzategia, 4-A Tel. 862081

Zumaiakok maila eta zelai berria estreinatzen ditu

Belar artifizialekoa da zelai berria. Porteriak eta jokalarientzako eserlekuak ere berriak dira eta Aita Mari aldeko porteriaren atzean txiringito bat egin dute ofizina, masaje-tarako gela eta taberna jasoko dituen.

Kiroldegiaren ondoan eraikitzen ari diren kirol gunearen obren barruan sartzen dira berrikuntza hauek guztiak. Kirol guneak, 100 miloiko aurrekontua du orotara eta zelaiaren berrikuntzari 38 miloi inguruko partida egokitu zaio.

Poligras enpresa aritu da zelai berrian lanean. Lurra berdindu eta belar tirak makina baten bidez ezarri dituzte lehenik. Guztira 28 xafla dira bata bestearen ondotik zeharretaka kokatu eta kolarekin itsatsi dituztenak. Zelaiko marra txuriak ezartzea izan da agian lanik zailena. Belar txuriaren tirak sartzeko zegokion tokietan jada kokaturik zegoen belar berdea moztu eta atera egin behar izan dute. Belarrari gainera hondar geruza bat eta kautxozko bigarren geruza bat ezarrita bukatu dute zelaia.


Pozez kabitu ezinda daude Zumaiakoko arduradunak. "Belar naturalak bere enkantua du, baina honek posibilitate asko irekitzen dizkigu" dio Joseba Esnal lehendakari berriak. Zelai zaharren partiduak eta lehen taldearen entrenamenduak baino ez ziren egiten, gehiago erabiliz gero zelaia erabat hondatuta gelditzen baitzen. Gainerako guztia 'Anexo'an egiten zen. "Orain entrenamendu eta partidu guztiak, mutil koskor gazteenek egiten dituztenak ere,

zelaian izango dira. Zumaiakok ordutegi bat izango du beretzat gordeta, baina hortik aurrera zelaia herritarrentzat ere irekita egongo da. Eskolarrak bertan joki daitezke, 'futbol siete' txapelketak antolatu..." dio Joseba Esnalek.

Hiru belar artifizial mota omen daude, udaletxeak askatasuna eman die aukeratzeko, eta berriena hartu dute. Santanderko 'Solares' kirol gunean egon ziren belarra probatzen. "Oso inbentu berria da. Real Madridenten kirol hirian, Solaresen eta Llodion baino ez dute jarri orain arte. Hemengoak bukatu eta Lezamara doaz" komentatzen du Joxe Antonio Alberdi lehendakari ohiak. Eragiten dituen erredurak izan ohi dira belar artifizialari ezartzen zaion aitzakia nagusia, baina mota berri honek, kautxozko geruza eta belarrak duen grasa berezi bat dela medio ez du erredurarik sortzen.

Mantentzean dago zelai berriaren beste abantaila bat. Ureztatzea baino ez du behar, eta urtean behin sor daitezkeen kalteak berdinduko dituen makina bat pasatzea. Ureztatze sistemak, argiteriak bezala, ordenagailu baten bidez funtzionatzen du. "Gainera Poligras-ek hiru urteko garantia eman digu eta hiru urte hauetan beren gain gelditzen da mantenimendua ere" dio Joxe Antonio Alberdik.

Lehen belarra moztu, abonatu eta ureztatu beharra zegoen, drenajerako zuloak egin ur gehiegi zegoenean, zelaia markatu, etab.



Inagurazioa irailaren hasieran izango da alebinen eta beteranoen partidu banarekin eta preferenteko taldeekin jokatu den triangular batekin.

Zelai berria ez ezik maila berria ere estreinatzen du Zumaiakok, joan den urtean preferentera igo baitziren. Itxaropentsu azaltzen dira klubeko arduradunak denboraldi berriari begira. "Arazorik gabe ibiltzea espero dugu. Joan den urtean denboraldi ikusgarria egin zuen blokea mantendu dugu, eta lau gazte eta itzuli zaizkigun hiru mutil gehitu dizkiogu" dio Joseba Esnalek. Hala ere ez omen dago ezer ziurtatzerik jada maila honetan dirutza handiak mugitzen baitira eta ekipa gehienek herritik kanpoko mutil asko fitxatu. "Guk ezin dugu saltsa horietan sartu, gero gaizki ateratzen bada kluba erabat apurtuta gelditzen baita" dio Joxe Antonio Alberdik.

Preferenteko taldea Oscar Castrok entrenatuko du. Jubenila Telmo Lisbonak, kadeteko lehen taldea Sireno Alzak, kadeteko bigarren taldea Francisco Morak eta nesken taldea Fernando Alejandrek.

Lehen taldearen denboraldiko lehen partidua Zestoaren aurka izango da, etxean, irailaren 10ean.

◀ ANTOKA AGIRRE

- Arrainak eta haragiak aukeran
- Eguneko menua
- Jangela klimatizatua

Juaristi
JATETXEA

Basadi auzategia, 10

Tel. 861853

 taberna
JUSTA
eguneroko bazkariak

Erribera kalea, 20

BALEIKE

2000ko iraila. 71. zenb.

Bostkirol proba arrakastatsua



Irailaren lehen egunetan ospatu zen Zumaian Bostkirol probaren lehen edizioa, herriko kirol egutegian tarte bat lortuko duen proba bat inungo zalantzarik gabe. Kirol proba hau udarari amaiera emateko antolatuta diren ekintzen barruan sartzen da, eta antolatzaileek oso denbora gutxi izan badute ere, esan daiteke lehen edizio hau primeran atera zaiela.

Izenak dioen bezala, bost kirol froga desberdinez osatua dago proba hau: mendi bizikleta, igeriketa, korrika, piraguismoa eta zaku-karrera. Bost froga, bost kirolari. Bostkirolen parte hartzea taldeka egin behar da eta talde bakoitza sei lagunez osatua egon du. Lehen bostak froga ezberdinetan parte hartzeko eta bestea laguntzaile bezala. Talde bakoitzak gutxienez hiru kide zumaia izan behar ditu eta gainera mistoa izan behar du.

Irailaren 2an jokatu zen Bostkirol proba. Guztira 16 taldek eman zuten izena proba honetan parte hartzeko, antolatzaileak harrituta utzi zituen kopurua, hauek bost talde inguru

besterik ez baizituzten espero. Hasera arratsaldeko 7etan eman behar bazitzaion ere, arratsalde erdirako dena prest zegoen Arranpla inguruan: dutxak martxan, piraguak kirolarien zain, etab.

Jendetza izugarria inguratu zen Amaia Plaza ingurura proba hau ikustera. Arratsaldeko 7an oraindik jo ez zituenean eman zitzaion hasera mendi bizikleta frogari. Hauek San Telmo ingurura igotzen ari zirela, igerilerariak jada bere postuetan zeuden txanda jaso zain. Txirringularia heldu bezain laister uretara, ahalik eta tarte handiena lortzeko asmoarekin. Arranplatik Abascalera, eta Abascaletik Arranplara igerian egin ondoren, korrikalariaren txanda heldu zen. Hauek, laisterka, Paola, San Telmo kalea, Erribera eta Txomin Agirre kaia zeharkatu zuten, jarraian besokoa piraguistek hartu zutelarik. Paol puntako joan-etorria egin zuten hauek, txanda zaku-karreran parte hartu behar zuten taldekideari emanaz. Hasera batean 10

kilotako zama eraman behar bazuten ere, azkenean 15 kilo ondarrez bete zegoen zakua, eta hori amaieran somatu egin zen. Froga amaitzean denak nekatuak ikusten ziren, bete beharreko lana ere ez baizen erraza.

Lehen edizio honetako irabazlea Oberenak taldea suertatu zen. Hauek 29 minutu eta 53 segundutan bete zuten lana. Bigarren Aupa Xeme taldea heldu zen 30 minutu eta 28 segunduko denborarekin eta hirugarren Xaleak taldea 33 minutu eta 10 segunduko denborarekin. Oberenak taldeko kideak Aitor Egaña, Antton Alberdi, Erlantz Esteibar, Haize Galarraga, Alazne Urbieta eta Saioa Soraluze izan ziren.

Lehen edizio honek izan duen arrakasta ikusita, antolatzaileek datorren urterako aldaketa batzuk sartuko dizkie ibilbideari, beti ere bost froga hauek mantenduz. Hala izan dadila!

◀ JUAN LUIS ROMATET

J
A
T
E
T
X
E
A

- * Eguneroko bazkaria
- * Pintxo eta bokatak
- * Koadrilentzako menu bereziak
- * Kazuelitak eta plater konbinatuak

- Depilaketa (beroa, epela)
- Minik egiten ez duen depilaketa elektrikoa
- Aurpegia edertzeko sendabideak
- Gorputza edertzeko sendabideak
- Lurrindegia
- Solarium-a

Pablo Milanesen kontzertuan kale, gainerakoan ondo

Musika Patronatuak Jaialdiaren balorazio gazi-goza egin du

"Guretzat garrantzitsuena ikastaroak dira" dio Mertzek. Estatuko ikasleen gorakada nabarmendu nahi dute hasteko. Izan ere egun horietan Valentziako 'Caixa' eta Las Palmas-eko Jaialdiak ere badira, eta jendeak hauen ondoan Zumaiakoa aukeratzek badu meriturik. Datorren urterako berrikuntza bat ere proposatu omen diete: aste santurako perfektionamendu kurtso bat antolatzea ikasleek eurek finantziatua.

Kontzertuen balorazioa egiterakoan Joxe Mari Kortaren atentatua aipatzen dute lehenik. Hiru egunetako kontzertu guztiak suspenditu egin ziren atentatuaren ondoren.

Benitoren kontzertuarekin Maria eta Joseko antzokia bete egin zen. Haurren kontzertu pedagogikora aldiz jende gutxi joan zen ikustera. Koruak beti bezala arrakasta handia izan zuen. Berrikuntza bat aipatzekotan zuzendari lanetan Agustin Zubimendiren ordez Amaia Aldalur aritu izana. Goikoko kafe musikala ere oso ondo, ordubete lehenagotik jendeak tokiak hartuta omen zituen.

Pablo Milanesen kontzertua apustu handia izan da eta ez da ondo atera. Antolakuntzan gogor egin dute lan, baina kontzertuak suposatzen zuen bederatziko miloiko gastua kubritzeko behar ziren 3.000 sarreretatik 1.200 baino ez ziren saldu. Ea datorren urterako animatzen diren eta hobeto ateratzen den. ◀ **ANTXOKA AGIRRE**

Pablo Milanés "Bakailua asko gustatzen zait"

Zur eta lur utzi gaitu Marta Pablaren 'manager'-ak Baleikerako elkarrizketari baiezkoa eman dionean.

Esandako orduan azaldu garenean ordea ilun jarri digu Martak, Vicentek, prentsa arduradunak, iluna baino beltzago, eta, Lazarak, jefekak, garbi esan digu ezetz. Pablo leher eginda dago Birarekin. Kontzertu ondorenean azaldu eta 'kolatu'ko gaituztela agindu digute.

Kontzertua ilunabarrean hasi da. Jende gutxi azaldu da baina Kubatarrek lortu dute giroa berotzea. Argazkilari ugari dabilta, eta baita telebista kamera batzuk ere. Hainbeste prentsa, akreditazio eta ezezkorekin 'papatzi' konplejoa hasi zaigu sartzen. ETBko 'Submarino amarillo'koekin Rociito eta Antonio David-i buruz aritu gara hizketan.

Ez da Lazaro azaldu, eta ez digute pasatzen utzi nahi, baina alkateari hesia ireki diotenean, honen atzetik sartu gara, "udaletxeko aldizkariak gara, alkateari argazkia atera behar diogu Pablarekin".

Eszenatokiaren bestekaldean lunch-a dago eta dezenteko jendetza dabil pintxo eta kaxuelita artean: antolatzaleak, musikariak, Kubako Durangotik etorritako 'peña' bat, udaletxeko jendea... hantxe dago Pablo ere, patxadatsu, siloi batean eserita. Denek nahi dute berarekin hitz egin, argazkiren bat atera edo autograforen bat lortu. Ez da erreza muturra sartzea, baina azkenean osatu dugu elkarrizketa:

- Nolatan Zumaian?
- ... ni beti itzultzen naiz Euskal Herrira.
- Nondik nora egin duzue bira?
- Argentina, Italia, Suitza...
- Hotz egingo zuen ezta?
- Sorian pasa dugu hotza. 3 gradu baino ez zituen egiten...
- Nekatuta?
- Leher eginda nago. Iraultzailea izatea oso nekagarria da. Erreakzionario bihurtuko naiz hemendik aurrera.
- Nondik sortzen dituzu zeure kantuetako poesiak?
- Bizitzatik.
- Zer da Euskal Herritik gehien gustatzen zaizuna?
- Bertako kultura. Ahozko tradizioa oso aberatsa du herri honek eta hori asko gustatzen zait. Makailua ere asko gustatzen zait (bakailu kaxuelita ari da jaten). Hogarrean oso tripaki onak egiten dituztela komentatu diogu. Ez omen ditu inoiz jan. Ekarriko dizkiogula. Hala, hogarretik buelta egin ondoren, tripaki platerkada bero-beroa esku artean duela agurtu dugu; '¡buen viaje a Cuba!'



KUKUTZ
serigrafia
*kamisetak
*twiskeroak
*paperezko poltsak, e.a.
baltasar etxabe 7 tel: 86 05 69



AIZPURUA
R
U
D
E
N
D
A
Aita-Mari auzategia, 17
Tel. 943 861569



LEIZE
taberna
Juan Belmonte, 6 Tel. 860415

Voyeurren eta monstren artean

Zumaiako XIII. Arte Erakusketak bi ekitaldi besterik ez du izan aurten. Arte taldeko kideak mila gauzetan sartuta gaudenez gero, ezin izan diogu aurreko urtetako dinamikari eutsi eta bi gazteen erakusketak antolatzea erabaki dugu, bat zumaiarra eta betea kanpotarra, ohikoa den bezala azken urte hauetan.

Badakigu jendeak pena handia hartu duela "Hurrengo tabernaArte" ez delako egin, baina gure indarren arabera jokatu behar genuen eta ez da inor ausartu herrian ikusmin handia sortzen zuen erakusketa alkoholikoa antolatzen. Hurrengo urtean ikusiko dugu.

Oxforden jarri diren erakusketen artean Nerea Zapirain artista urniatarrena izan da lehendabizikoa. "Voyeur" izeneko instalazio interesgarria erakutsi digu neska gazte honek.

Begiradaren inguruko hausnarketa eta pribazitatea eta publikotasunaren arteko mugak ziren planteatutako gaiak. Etxe antzeko hiru espaziotan leihoari begira jarri gintuen Nereak, bertatik kanpoa ikusteko (edo ez ikusteko) hala ere leihoaren apalean "Mind the Gap" esaldia zegoen tartearrekin kontuz ibiltzeko ohartaraziz. Metroetako andenen ertzetan jartzen den esaldiarekin konturatzen gara kalea eta etxearen arteko mugak arris-



kutsuak direla, bizitza pribatua, bai gurea eta bai besteena eta publikoaren artean muga zehaztezina dagoela nahiz eta begirada geldirik egon ezin.

Gainera, kortinez osatutako espazioak oso aproposak ziren Nereak egin nahi zuen hausnarketa egiteko, kabina moduan funtzionatzen baitzuen, erakusketa aretotik isolatuz eta kanpoko begiraden maxiaketaz babestuz.

Horrela, gure gizartean pil-pilean dagoen arazo baten gaineko hausnarketa ederra eskaini digu artista gazte honek.

Igor Zendoiairen erakusketa ezberdina da. Azken urtetan egindako lanak aurkeztu nahi izan ditu Oxford aretoan "Giza materia" izenburupean. Orain dela pare bat urte Nikol tabernan erakutsitako lan batzuekin batera, azken hilabetetan pintatutako koadroak jarri ditu barneladeko hormetan.

Lan ezberdinak dira azken garaikoak. Ohialen aukerak erabili ditu bertan irudi gogorrek jartzeko eta kolore nahasiz pintatzeko. Sarritan igerrri diot Igorri giza aurpegiaren aldeko interesa. Erretratu asko pintatu ditu eta gai horren inguruan gustura mugitzen dela dirudi. Gizakiaren espresio gune interesgarriarenetakoa da aurpegia eta gure izaeraren ispilua izan daiteke. Hala ere, gizakiaren alde ezkutuko okerrenak aztertzen dituela ematen du, gure barne munstruak ateratzen ditu ereduaren aurpegietera eta zerbait ezkorra edo somatzen da bere pinturretan.

Ez da gauza bera gertatzen koloretako argazkiz osatutako lanean. Aurpegiak, erretratua izaten jarraitzen du, baina askoz ere alaiagoa da. Azkenean mustroen eremutik edertasunaren eremura pasa da.

◀ ISMAEL MANTEROLA ISPIZUA



Loitz

* Eskola eta bulegorako materiala
* Enkoadernazioak
* Fax publikoa
* Aldizkari eta opariak

Erribera, 4

Tel./Faxa: 143422



ile-apaindegia

Maxi

ETXEZARRETA, 9
TEL: 943 86 10 21

iraila

PINTURA TAILERRA

Urritik maiatzera. Antolaketa bilera: irailaren 21eab 7etan kultur etxean. Irakaslea, Ander Hormazuri.

ALTZARIEN BERRIZTAPENA.

Urriaren 2tik azaroaren 29ra. Astelehen eta asteazkenetan, 3etatik 5etara. 30 orduko ikastaroa. Matrikula: 6.500 pezeta eta 2.500 pezeta materialetarako.

HAURRENTZAKO PLASTIKA TAILERRA

Urriari hasi eta Gabonetako oporrak bukatu arte. Matrikula: 6.000 pezeta. 6 urtetik aurrekoentzat.

EMAKUMEA ETA BIZITZA ZIKLOAN ALDAKETAK

Urriari zehar. Informazioa Gizarte Zerbitzuetan (943-862200)

DEIALDIA

Zumaiako Argazki aukeraketa 2000. Herriaren kultur, jai eta turismo aurpegia azaltzen duten argazkiak nahi dira. Aukeraketarako oinarriak kultur etxean dituzue. Aurkezteko epea: abenduaren 1etik 11era.

ERAKUSKETAK

Gurung: Nepalgo ezti-ehiztariak. Xabier Sardá Fabregat eta Eli Azurmendi.

► Irailaren 29tik urriaren 15era
Foronda Kultur Etxean.

LUDOTEKA ZABALTZE FESTA.

► Irailak 16. 16.00etan,

MUSIKA EMANALDIA

► Irailak 23. 19.00etan
Kofradian

SAN MIGELAK

Artadi auzoko jaiak.
► Irailak 29

IPUINKONTAKETA

Lamiak taldearekin.
► Urriak 5. 18.00etan
Forondan

ZINE FORUM SAIOA

► Urriak 5. 22.15etan

KONTZERTUA:

Societat Coral L'Aliança
► Urriak 12. 20etan
Aita Marin


ZUMAIAKO ASTEBURU MIKOLOGIKOA

► Urriak 20tik 22ra

ANTZERKIA

Bederen 1-en "Agureok ez genuke maitemindu behar"
► Urriak 21

B. Etxegarai 2., behea
943 86 27 14



GAZTEEN ERROPA

ZALLA

Taberna - Erreteria

* plater konbinatuak
* otartekoak
* oilasko errete

San Pedro, 4 Tel. 862387



Zerbitzu Ofiziala

ZUMAIA MOTOR

Santixo auzoa, 22 Tel./Faxa: 143143



ERRIBERA 10
TEL: 943 86 21 14

liburuak
aldizkariak
CDak
komikiak
eta
fantzineak

ttikittaka



BALTASAR ETXABE Z/G TEL: 943 - 14 31 00 ZUMAIA

TXALAPARTA

O P A R I A K

Angeles Sorazu, 2
Tel. 143089

MILA ILE APAINDEGIA



Ile - kosmetikan diplomatua

Foruen Enparantza, 13 - 1 Tfnoa: 861160
ZUMAIA

"Muagi"

ERREHABILITAZIOA
KIROL MEDIKUNTZA
FISIOTERAPIA


Aita Mari 3.blokea
Tel. 943 86 16 91



RPS: 034/97

ILE APAINDEGIA



Etxezarreta, 19 Tel. 862342





argazki zaharra



Bai. Zubi-Txiki aldera joan beharko. Han eukiko dixkiat Martin, Antonio eta Alberto nere zain txibitara joateko. Ea atzo baino zorte hobea degun. Atzokoa behintzat, arraioa!, ez huan egun ona izan! Hainbeste ordu pasa eta gero, zer harrapatuko eta... hamaika txibi bakarrik! Kauen laletxe! Hotel Amayak behar dituen aina harrapatzea ez diagu posible izango, baina Hotel Central-ek eskatutakoaren erdia eraman ahal izan ezker ez huke txarra izango, ala San Pedoren bizarrak! Lehenbailehen joan beharko itsasoa lainotzen hasia zegok-eta. Ez diat uste galernak joko duenik, paol muturretik behintzat ez zian halako itxurarik, ipar-haize ederra zebilek gainera, baina ez huke harrigarria izango zaparradaren bat hastea. Beno, udako hauek etorri bezain azkar joaten dituk eta alde horretatik lasai natxiok. Andadio! Zer arraio dago hor eskaileren berrenean? Joño! Itsasgorak ekarritako egurrezko kutxatxo bat ematen dik! Nahixago nitek barruan balixo haundiko zerbait balego! Joan dan

jaixan Amayako zinean ikusitako pitxiz betetakoa hori baino haundixago huan, baina nahiko eta gehiegi genikek hor urrezko bi eraztun, hirubat koilare eta pare bat pullsera egotea gure batel zaharrari aire gaztea emateko. Branka zorrotzagoa ipini, tosta eta toleta berriak jarri, arraunak ere berriak erosi, kroskoa konpondu eta pintatu eta... aide ederrean ibiliko gitxuan! Kaka zaharra! Mikeletea zetorrek hor atzetik! Bapore honen tximiniari begira jarri beharko. Ea aurrera egin eta ez dan ezertaz konturatzen. Ez dadila nirekin berriketan geratu behintzat, horrek kutxa ikusten badu udaletxearena edo Itsas Konmandantziarena dela esateko gai dek-eta! Mikeletea pasa ondoren, behera jexviko nauk, kutxa jaso, hor eskubiko trapu zahar horrekin tapatu, beste inor ez zebilek moilan, batelera eraman eta itsas barruan gaudenean irekiko diagu. Hau dek poza! Iruditzen zaidak gaur egun ona izango degula!

Txoazkin

OPTIKA ZUMAIA



Txomin Agirre kaia, 6
Tel./Faxa: 943-143057
Z U M A I A



Zoruen kutxilaketa eta barnizaketa
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12

Tel. 861412

Euskara ikastaroak

euskalduntze • alfabetatze • EGA • hizkuntz eskakizunak

Aukera paregabea



matrikulazioa: irailak 4tik 27ra

bulego ordutegia: goizez 10-1/ arratsaldez 5-8

izena eman:

Zumaiako Txomin Agirre AEK euskaltegian

TEL: 943 86 02 48

æek

izena eman



Alai auzategia, 12 Tel: 943 86 02 58 ZUMAIA

Itzurun zuhaitz bidea, 1 Tel: 943 86 24 30 ZUMAIA

BARGUREN

agustin

- Txarkuteria bikaina
- Inguruko baserrietako haragirik onena

• Geuk aurrez prestatutako jaki goxoak

KOSTA



GAS C.B.

REPSOL

BUTANO

ZERBITZU OFIZIALA


ETXEZARRETA, 6
ZUMAIA
TEL. 861078

KALEFAZIO ETA GAS INSTALAZIOAK

PRESUPUESTOAK ZURE NEURRIRA
EGITEN DITUGU.
ESKA EZAZU ZEUREA INOLAKO
KONPROMEZURIK GABE

Zatoz eta galdetu

GAS NATURALA
BUTANO
PROPANO



DORNUTEGI

SUKALDEKO ALTZARIAK

Basadi auzoa, 10 behea Tel: 943 86 20 51

- Sukalderako hornikuntza diseinuak.
- Lanen zuzendaritza.
- Edozein sukaldetara moldaturiko diseinu bereziak.
- Kalitate-prezioan parekorik ez.

